

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

17267 39/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Laguntza soziala eta ekonomikoa emateko eta epaiak betearazteko finantza-neurriena.

I

Pandemiak eragindako larrialdi ekonomiko eta sozialeko egoeraren ondorioz, oraindik ere, laguntza-neurri sozial eta ekonomikoak hartu behar dira. Horrez gain, ustekabeko egoera juridikoen ondoriozko larrialdi-egoerak sortu dira, esaterako, ondorio ekonomikoak sor ditzaketen, eta, hortaz, presako lege-aldaketak ekar ditzaketen epai judizialak dagokion moduan bete beharra.

Deskribatutako egoera horiei erantzuteko helburua oinarri hartuta, hainbat neurri sozial eta ekonomiko hartu dira, ondoren zehazten diren moduan.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunen fiskalitatea murrizteko helburuarekin, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren fiskalitatea salbuestea deklaratzeko da, autonomia-erkidegoek baliabide ekonomikorik ez duten pertsonen gizarteratzeko gutxieneko errenta gisara eta biziraupen-baliabide ekonomikoak bermatzearen ezartzen dituzten prestazio ekonomikoen baldintza beretan; bai eta autonomia-erkidegoek edo toki-erakundeek, beren araudien arabera, ondoko hauei erantzuteko ezartzen dituzten gainerako laguntzen baldintza beretan ere: gizarte-bazterketa arriskua duten kolektiboak, gizarte-larrialdiko egoerei, baliabiderik gabekoak, bizitoki-premiei, eta adingabeen edo desgaituen elikadura-premiei, eskolaratze-premiei edo gainerako oinarriko premiei, baldin eta ez beraiek ez beren arduradunek ez badaukate nahikoa baliabide ekonomikorik; horrela, osotara, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera gehi prestazio eta laguntza horien salbuetsitako urtebeteko kopuruak ezin du ondorio askotarako errenten adierazle publikoaren halako 1,5 gaintu.

Bestetik, maiatzaren 16ko 855/2008 Errege Dekretuari jarraikiz, «ESCAL UGS, SL.» konpainiari «Castor» izeneko ustiapen-emakida eman zitzaion gas naturala lurpean biltegitratzeko. Maiatzaren 16ko 855/2008 Errege Dekretu horren 14. artikulua enpresa emakidadunari lurpeko biltegitratzearekin lotutako instalazioen kontabilitate-balio garbia konpentsatzea aurreikusten zuen, betiere instalazio horiek martxan jarraitzen bazuten.

13/2014 Errege Lege Dekretuak, urriaren 3koak, Gas-sistemarekin eta zentral nuklearren titulatasunarekin lotutako urgentziazko neurriak hartzeari buruzkoak, «Castor» biltegitratze-emakida azkentzea erabaki zuen, eta ENAGAS-i eman zion hura administratzeko baimena. ESCAL konpainiak biltegitratze horretan egindako inbertsioak 1.350,729 milioi eurotan balioetsi ziren, eta ENAGAS konpainiak kopuru hori ordaindu zion ESCAL sozietateari.

13/2014 Errege Lege Dekretuak zenbateko hori 30 urtez kobratzeko eskubidea aitortu zion ENAGAS sozietateari, eta kobratzeko eskubidea hirugarrenei lagatzeko baimena eman zuen; kasu horretan, hirugarren horiek gas-sistemaren likidazio-sistemaren subjektu bihurtuko lirarteke, eta, beraz, sistemaren gainerako ordainketen aldean lehentasuna izango lukete.

Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 21eko 152/2017 epaiak konstituzio-kontrakotasunekotzat eta deuseztat jo zituen urriaren 3ko 13/2014 Errege Lege Dekretuaren puntu hauek: 4. artikulutik 6.era bitartekoak, 2.2 artikulua, lehen xedapen gehigarria, eta lehen xedapen iragankorra (13/2014 Errege Lege Dekretuak, besteak beste, ENAGASen kobratzeko eskubideak jasotzen zituen).

Auzitegi Gorenak, Administrazioarekiko Auzien Salaren 1404/2020 epaian, onartu egin du Banco Santander, S.A., CaixaBank, S.A. eta Bankia, S.A. entitateek eskubidea dutela Estatuak 1.350,729 milioi euroko kalte-ordaina eman diezaien, hiru entitateek zenbateko hori aurreratu baitzieten ENAGAS konpainiari Castor izeneko gasaren urpeko biltegia ixten

laguntzeko. Zenbateko horri, gainera, erreklamazioa aurkeztu zenetik epaia jakinarazi zen arte sortutako konpentsazio-interesak gehitu behar zaizkio, indarreko araudiaren arabera jakinarazpen horretatik sor litezkeen legezko interesei kalterik egin gabe.

Epaia horretan, Auzitegi Gorenak partzialki baiesten du hiru entitateen errekurtsioa, non eta «Estatu legegilearen erantzukizun-erreklamazio» bat aurkeztu baitzioten Gobernuari 2018ko apirilean, Castor gas-biltegiaren emakidadun ohiari biltegia gelditzeagatik eman zitzaion kalte-ordainaren dirua itzultzeko eskatzeko.

Epaia horren betearazpena Ogasun Ministerioak gauzatuko du, zeinari, Estatu legegilearen ondare-erantzukizuneko epaiak ordaintzera bideratutako kreditua handitzea onartzen baitzaio epaia ordaindu ahal izateko.

Ordainketa hori egiteko behar den finantzaketa lortzeko, kontuan hartuz epaian ezarritako zenbatekoa handia dela eta Estatuak hainbat premiari aurre egin behar izan diola COVID-19ak eragindako ondorio ekonomiko, sozial eta sanitarioak arintzeko, hein batean zorpetzea aukeratu behar izan da, Kontingentzia Funtsak ez baitu epai hori finantzatzeko baliabide nahikorik.

Azken xedapenetan, Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurrien abenduaren 29ko 14/2000 Legea aldatzen da. Izan ere, COVID-19aren pandemiak inoiz ez bezalako krisialdi globala eragin duen egoera honetan, Espainiak finantza-erakunde aldeaniztunez egindako ekarpenek garrantzia berezia hartzen dute.

Erakunde horietan, sarritan, bai akzioen harpidetzari bai funtsen birjarpenari dagokionez, ekarpen horien konpromisoa hartzeko behar den tresna juridikoa formalizatzeke epea urte naturaleko azken hilabetean amaitzen da, eta lehenengo ordainketa egiteko epea hurrengo urtean hasten da. Helburua gastu-espeditenteen izapideak egokitzeko mekanismo bat premiaz gaitzea da, noiz eta gastu-espeditente horiekin lotutako ekarpenak egiteko nazioarteko egutegiekin zera ezartzen duten: gastu-konpromisoa hartu zen urte naturala ez den beste urte natural batean (normalean, hurrengo urtean) egin behar dela ekarpen baten lehen ordainketa, Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 47.6 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz.

Mekanismo hori gaitzea aparteko eta presako beharrezaneko neurri bat dela irizten da, Espainia garaiz eta forman integratu ahal izan dadin finantza-erakunde aldeaniztunek COVID-19aren krisialdiari erantzun globala emateko abian jartzen dituzten tresnetan. Pandemiak krisialdi global bat sortu du, eta horri aurre egiteko, herrialde bakoitzari banakako erantzuna ematea ez da eraginkorra; aitzitik, tresna aldeaniztunak behar dira, horiek baitira birusak eragindako ekonomia ahulenei finantzaketa bideratzeko eta osasun-sistemak sendotzen direla eta herrialde pobreenetan txertoak modu bidezkoan erosten direla bermatzeko tresna nagusia. Espainiak prest egon behar du dagokion baliabideak nazioartean ezarritako epeetan eskaini ahal izateko, eta proposamen honen bidez, horretarako behar den mekanismoa inplementatzea bermatzen da.

Horrez gain, Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzeko uztailaren 6ko 19/1994 Legea aldatzen da, hauek gauzatzeko epeak urtebetez luzatzeko: batetik, Kanarietako inbertsioetarako erreserba —2016an hasitako zergaldietan eskuratutako mozkinekin hornitzen dena— gauzatzeko epea; eta, bestetik, erreserba horri 2017an gauzatutako eta zuzkidura egin aurreko inbertsioei dagokien zuzkidura egiteko epea, (inbertsio horiek erreserba gauzatu izanaren frogatzat hartzen dira); izan ere, pandemiak 2020ko inbertsioetan eta emaitza ekonomikoetan ondorio larriak sortu ditu.

II

Errege lege-dekretu honek azalpen-zati bat eta xedapen-zati bat ditu; xedapen zatiak bi kapitulutan banatzen diren bi artikulatu ditu, xedapen indargabetzaile bakar bat eta bost azken xedapen.

Errege lege-dekretu honen 1. artikulua xedea bizitzeko gutxieneko diru-sarrera salbuetsizat jotzea da, gizarte-laguntzako gainerako diru-prestazio publikoen baldintza berberetan, eta hartzaileei dagokien zerga aitortzeko betebeharrari kalterik egin gabe.

Neurri hori premiaz hartu behar da kolektibo horiek lehenbailehen jaso ahal izan ditzaten neurri horien onura sozial eta ekonomikoak.

Bigarren artikulua xedea Auzitegi Gorenaren 1404/2020 epaia egokiro eta premiaz betearaztea da, epe barruan bete behar baita nahitaez.

Xedapen indargabetzaile bakarrak, klausula orokor baten bidez, indarrrik gabe uzten ditu errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren edo hori ezeztatzen duten maila bereko edo beheragoko arau guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoak Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurrien abenduaren 29ko 14/2000 Legea aldatzen du; izan ere, aldaketa hori premiazkoa da COVID-19aren pandemiak inoiz ez bezalako krisialdi globala eragin duen egoera honetan, eta, hortaz, Espainiak finantza-erakunde aldean zuzeneko eragin duen ekarpenak bereziki garrantzitsuak dira krisialdi horren ondorioak arintzeko.

Azken xedapenetako bigarrenak Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzeko uztailaren 6ko 19/1994 Legea aldatzen du, hauek gauzatzeko epeak urtebetez luzatzeko: Kanarietako inbertsioetarako erreserba —2016an hasitako zergaldietan eskuratutako mozkinekin hornitzen dena— gauzatzeko epea; eta, bestetik, erreserba horri 2017an gauzatzeko eta zuzkidura egin aurreko inbertsioei dagokien zuzkidura egiteko epea, (inbertsio horiek erreserba gauzatu izanaren frogatzen dira); izan ere, pandemiak 2020ko inbertsioetan eta emaitza ekonomikoetan ondorio larriak sortu ditu, eta, horrek, ondorioz, erantzun berehalakoa eta presakoa behar du.

Hiru azken xedapenak hauek ezartzeko dira, hurrenez hurren: eskumen-titulua, arauak emateko gaikuntza eta indarrean sartzea.

III

Hartzen diren neurri guztietan ematen dira, haien izaera eta xedea ikusirik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretu bat onartu ahal izateko baldintza gisa eskatzen dituen aparteko eta presako inguruabarrak.

Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrezko dagoenetan», baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarriko erakundeentzako antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrean.

Lehenengo alderdiari dagokionez, lege-mailako tresna arauemaile horren erabilera beste inguruabar batzuek baldintzatzen dute; izan ere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, berehalako araugintza-ekintza behar da, ohiko bidetik edo legeak parlamentuan izapidetzeko presako prozeduratik behar izaten dena baino epe laburragoan (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 epaia, otsailaren 4koa).

Konstituzio Auzitegiak deklaratu duenez, aparteko eta presako beharrezko-egoera hori «elementu ugaritatu ondoriozta daiteke», besteak beste «arauaren zioen azalpenean ageri direnetatik» (Konstituzio Auzitegiaren 6/1983 epaia, otsailaren 4koa). Bestalde, errege lege-dekretua erabiltzeko aukera ematen duen aparteko eta presako beharrezko-egoeraren eta bertan jasotako neurrien artean «zuzeneko edo kongruentziazko» harremana egon behar da. Beraz, aparteko eta presako beharrezkoaren baldintza betetzeko, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 61/2018 epaiak (4. oinarri juridikoa) hauek betetzea eskatzen du: batetik, «Gobernuak tresna hori onartzeko aztertu dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», hau da, presako egoera azaltzea; eta, bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean».

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua ondoko hau bada, gure Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz exijitu izan duen bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria): Gobernuaren helburuen barruko egoera jakin bati laguntza ematea, noiz eta, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik, berehalako

araugintza-ekintza eskatzen duen, legeak Parlamentuan izapidetzeko erabiltzen den ohiko bidean edo presako prozeduran baino epe laburragoan. Eta are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrizana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarriz arreta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek modu sakon eta arrazoituan justifikatzen dute arau honen onarpena (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Esan behar da, gainera, errege lege-dekretu honek ez duela eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundeen antolamenduan eta Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ezta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskudeei buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Alde horretatik, eta Espainiako Konstituzioaren I. tituluaren araututako herritarren eskubide, betebehar eta askatasunak ukitzeko debekuari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren I. doktrina bateratuak, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 31ko 139/2016 epaiak (6. oinarri juridikoa) laburbiltzen duenak, honako hau adierazten du: «1.a) (...) auzitegi honek baztertu egin du muga horren interpretazio zabalago bat, interpretazio horrek lege-dekretuaren figura hustea ekarriko bailuke, eta hura baliorik gabe utziko bailuke Konstituzioaren I. tituluaren jasotako gaiei buruzko edozein alderdi eragin handiagoarekin edo txikiagoarekin arautzeko; 2.a) Klausula murriztailea lege-dekretuaren figura ezerezera ez murrizteko moduan ulertu behar da; izan ere, Konstituzioak debekatzen duena eskubide, betebehar eta askatasun horien araubide orokor bat arautzea edo eskubide horietako batzuen edukiaren edo funtsezko elementuen aurka egitea da (Konstituzio Auzitegiaren 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, geroagoko beste batzuek berretsia, 8. oinarri juridikoa); 3.a) Auzitegiak ez du soilik aztertu behar lege-erreserbaren printzipioa nola adierazten den gai jakin batean; aitzitik, lege-dekretuak Espainiako Konstituzioaren I. tituluaren arautzen den eskubide, betebehar edo askatasunen bat «ukitu» duen aztertu behar du, eta, horretarako, kasu bakoitzean ukitutako eskubide, betebehar edo askatasun horren konstituzio-konfigurazioa hartu beharko du kontuan, bai eta konstituzio-testuan duen kokapen sistematikoa eta kasuan kasuko arauketa zehatzaren izaera eta irismena ere (...)».

IV

Errege lege-dekretu honek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua xedatutako erregulazio onaren printzipioei jarraitzen die: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Alde horretatik, argi dago premia- eta eraginkortasun-printzipioak betetzen direla; izan ere, ezartzen den neurriaren oinarrian interes orokorra dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik azkarrena. Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baizik ez baititu ezartzen. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, koherentea baita gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio

publikoaren izapideak betetzetik, lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honetan ahaleginak egin dira arauak herritarrei ahalik eta administrazio-zama txikienak eragiteko.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1.14 artikuluan xedatzen duenaren babesean ematen da, zeinak Estatuari esleitzen baitio ogasun orokorraren gaineko eskumen eskusiboa.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluan jasotako baimena baliatuta, Ogasuneko ministroaren proposamenez, eta Ministro Kontseiluak 2020ko abenduaren 29an egindako bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Gizarte-arloko neurriak

1. artikulua. *Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren tratamendua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.*

Azaroaren 28ko 35/2006 Legearen, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duenaren, eta sozietateen gaineko zergaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren legeak partzialki aldatzen dituenaren 7. artikuluko y) letra aldatzen da; Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen den egunetik sortuko ditu ondorioak, eta honela geratzen da idatzita:

«y) Gizarte Segurantzaren bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa; autonomia-erkidegoek gizarteratzeko gutxieneko errenta gisara ezarritako prestazio ekonomikoak gutxieneko biziraupen-baliabide ekonomikoak bermatzearen halakorik ez dutenei; eta autonomia-erkidegoek edo toki-erakundeek, beren araudien arabera, helburu hauetarako ezartzen dituzten gainerako laguntzak: erantzuna ematea gizarte-bazterketa arriskua duten kolektiboek, gizarte-larrialdiko egoerei, baliabiderik gabekoen bizitoki-premiei, eta adingabeen edo desgaituen elikadura-premiei, eskolaratze-premiei edo gainerako oinarritzko premiei, baldin eta ez beraiek ez beren arduradunek ez badaukate nahikoa baliabide ekonomikorik; eta, gehienez ere, osotara, salbuetsitako urtebeteko kopuruak ezin du ondorio askotarako errenten adierazle publikoaren halako 1,5 gainditu.

Salbuetsita egongo dira, orobat, Indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimak laguntzeko eta sorosteko abenduaren 11ko 35/1995 Legeak indarkeriazko delituen biktimezako aipatzen dituen laguntzak, bai eta Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan aurreikusten diren laguntzak, eta genero-indarkeria jasan duten biktimei biktima izateagatik emandako gainerako laguntza publikoak ere».

II. KAPITULUA

Epaia betearazteko neurri ekonomikoak

2. artikulua. *Ogasun Ministerioari kreditu-gehikuntza ematea.*

1. Estatu legegilearen ondare-erantzukizunari buruzko Auzitegi Gorenaren 1404/2020 epaia Ogasun Ministerioak betearaziko du, eta hura betearazteko eskumena eta dagokion gastu-espediente onartzeko eskumena Ogasuneko idazkariordetzaren titularrari esleituko zaizkio.

2. Epaia horren betearazpenaren ordainketa egiteko, 638.000.000 euroko kreditu-gehikuntza emango da aurrekontu-aplikazio honen barruan: 15.01. 923 M.471 «Auzitegi

Gorenaren 2013/11/20ko epaiaren eta Estatu legegilearen ondare-erantzukizuneko beste epai batzuen betearazpena ordaintzeko»; kreditu hori handitu egin daiteke.

3. Kreditu-gehikuntza hori zor publikoaren kontura finantzatuko da, Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Kreditu hori epaiaren zenbateko osora arte handituko da, eta kredituaren zenbatekoa finantzatzeko, Estatuko aurrekontuko beste kreditu batzuei baja emango zaie, eta ez dira aplikatuko Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan 4. apartatuan jasotako mugak.

5. Kreditu honen betearazpenarekin lotutako gastu-espeditenteak eta kontabilitate-dokumentuak salbuetsita egongo dira azaroaren 16ko HAC/1074/2020 Aginduan jasotako epeetatik (HAC/1074/2020 Agindua, azaroaren 16koa, 2020ko ekitaldia ixteko eragiketa hauek arautzen dituen): gastuen aurrekontuari buruzkoak eta aurrekontuz kanpoko eragiketei buruzkoak.

Era berean, salbuetsita geratuko dira, baita ere, 2019ko abenduaren 27ko Ministro Kontseiluaren Akordioaren seigarren eta zazpigarren apartatueta xedatzen denetik; akordio horrek 2019ko indarreko Estatuko Aurrekontu Orokorrek 2020ra luzatzeko aplikazio-irizpideak ezartzen ditu, sekzioen araberrako banaketa formalizatzen du eta gastu publikoaren kontrola indartzeko neurriak onartzen ditu.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. *Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurrien abenduaren 29ko 14/2000 Legea aldatzea.*

Zerga, Administrazio eta Gizarte Arloko Neurrien abenduaren 29ko 14/2000 Legea aldatzen da. Aldaketa errege-lege dekretu hau indarrean jartzen denean hasiko da ondorioak izaten eta indarraldi mugagabea izango du; honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 14/2000 Legearen 45. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«45. artikulua. *Nazioarteko finantza-erakundeei akzioak harpidetzeko eta funtsen ekarpena egiteko egintzak.*

1. Jarraian adierazten diren egintza hauek egiteko, nahikoa izango da Ministro Kontseiluak alde aurreko aldeko erabakia ematea, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren titularraren proposamenez, betiere Estatuko Aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa badago, eta, hala badagokio, azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 47. artikuluan aurreikusitako mugak betetzen badira, aurrez ezarritako ordainketa-egutegiari jarraikiz: Espainia eskubidezko kide den garapen-bankuetako eta finantza-erakunde aldeaniztunetako organo eskudunek adostutako kapital-gehikuntzei edo birjarpenei buruzko akordioen ondoriozko akzio-harpidetzarako edo funtsen ekarpenerako egintzak; Espainiak dagoeneko emaila moduan parte hartzen duen tresna aldeaniztunetan funtsak birjartzea, eta Espainiako estatuak egintza horien ondorioz hartutako betebeharrak betetzeko egin beharreko gastuak.

Erabakia Ministroen Kontseiluari helaraziko zaio, Ogasun Ministerioak txostena eman ondoren.

2. Artikulu honetan aipatzen diren espeditenteak, hau da, garapen-bankuetan eta finantza-erakunde aldeaniztunetan akzioak harpidetzeko edo funtsen ekarpena egiteko eta funtsak tresna aldeaniztunetan birjartzeko espeditenteak, dagokion tresna juridikoa formalizatuz ere azkendu ahal izango dira, nahiz eta haien betearazpenak, urte batean egin edo gehiagotan egin, hurrengo ekitaldian hasi

behar duen. Ondorio horietarako, kredituak konprometitu ahal izango dira, aplikatu beharreko aurrekontu-araudian zehazten diren mugekin».

Azken xedapenetako bigarrena. *Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzeko uztailaren 6ko 19/1994 Legea aldatzea.*

Zortzigarren xedapen iragankorra sartu da Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzeko uztailaren 6ko 19/1994 Legean, honela idatzita:

«Zortzigarren xedapen iragankorra. *Kanarietako Inbertsioetarako Erreserbari lotutako epea luzatzea.*

1. Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzeko uztailaren 6ko 19/1994 Legearen 27. artikularen 4. apartatuan aipatzen den gehieneko epea lau urtekoa izango da Kanarietan inbertsioak egiteko erreserbara bideratutako zenbatekoei dagokienez, eta erreserba horrek, araudi erregulatzaileak adierazten dituen baldintzei jarraikiz, 2016an hasitako zergaldietan lortutako etekinen zuzkidura jasoko du.

2. Uztailaren 6ko 19/1994 Legearen 27. artikularen 11. apartatuko lehenengo paragrafoan aipatzen den epea lau urtekoa izango da, 2017an gauzatutako eta zuzkidura egin aurreko inbertsioei dagokienez».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-tituluak.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioak 149.1.14 artikuluan xedatzen duenaren babesean ematen da, artikulua horrek Estatuari esleitzen baitio ogasun orokorraren gaineko eskumen eskusiboa.

Azken xedapenetako laugarrena. *Xedatutakoa aplikatzeko, garatzeko eta betearazteko gaikuntza.*

Gobernuari eta Ogasun Ministerioko titularrari xedapenak emateko eta behar diren neurriak hartzeko ahalmena ematen zaie, betiere beren eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatu eta betearazteko.

Azken xedapenetako bosgarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko abenduaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN